Cuidar de nuestros barrios es una prioridad y por ello hemos realizado mejoras en las carreteras de **Kipuzti bidea, Martintxone bidea, Zabalondo y el aparcamiento de Larrauri.**

## Bide konponketak, argiak eta txinboak

Gure auzoak jagotea eta auzokideen ongizatea hobetzea da gure lehentasunetako bat. Hori lortzeko asmoagaz, bideak konpontzea, argiztapena barriztutea eta txinboak jartea izan dira egindako azken lanak.

Kipuzti bidean, Martintxone bidean eta Zabalondo auzoko errepidean egin dira bide-konponketak. Horrez ganera, Larrauriko aparkalekua bere asfaltatu egin da.

Familia eta umeen beharrizanak bere asetu gura doguzanez Larrauriko auzoan umeentzako jolas-guneak barriztu egin dira, argazki honetan ikusten dan lez. Ekimen honetarako 8.745,88€-ko aurrekontua erabili da.



Se han renovado los columpios del barrio de Larrauri para disfrute de las familias y las niñas y niños.







(Erreskadan, Kipuzti Bidea, Martintxone Bidea eta Zabalondoko auzoa)





Larrauriko aparkalekua



Segurtasuna bermatzeak bere garrantzia handia dauko. Hori dala eta, Trobika auzoko Santa Marina bidean argi barriak jarri dira, bertan bizi diran auzokideen bizi-kalidadea hobetzeko eta egunerokotasunerako erosotasuna bermatzeko. Proiektu horren aurrekontua 5.570,88€-koa izan da.

El barrio Trobika cuenta con nuevas luces que mejoran la calidad de vida de las vecinas y vecinos.

# Llega a Mungia el contenedor gris para la fracción resto

Abenduan, herriko 181 puntutan, edukiontzi gris barriak jarriko dira lehendik dagozan edukiontzi berdeen ordez; edukiontzi barri horreek errefusa batzeko izango dira.




## Los contenedores de color verde serán sustituidos por los de color gris

Desde el Ayuntamiento se está desarrollando una campaña informativa encaminada a dar a conocer a la ciudadanía los cambios que registrará el sistema de recogida de basura con la llegada del contenedor gris a esta localidad.

**Su implantación comenzará en diciembre:** se sustituirán en un total de 181 ubicaciones contenedores de color verde por los nuevos de color gris.

El nuevo contenedor gris cumplirá las funciones que ha venido realizando el contenedor verde: en él se depositará lo que se conoce como **fracción resto**, es decir, aquellos residuos que no pueden ser arrojados a los contenedores de vidrio, envases, papel y cartón y materia orgánica.

Con el propósito de garantizar la seguridad del sistema de recogida de residuos, los contenedores que estén ubicados en el lado izquierdo de la vía pública pasarán a estar colocados en el lado derecho.

### SUSTITUCIÓN DE CONTENEDORES SOTERRADOS CON PROBLEMAS DE SEGURIDAD POR AÉREOS

Tal y como se muestra en las imágenes, se ha llevado a cabo la sustitución de contenedores soterrados con problemas de seguridad por contenedores aéreos, con el objetivo de facilitar la maniobra y estacionamiento de los camiones recolectores:

Hondakin-bilketan, segurtasun aldetik arazoak emoten dabezan edukiontzi lurperatuen ordez ohiko edukiontziak jarriko dira.









# El Ayuntamiento se ve obligado a reforzar el servicio de desratización por los problemas derivados de dejar comida para los gatos en la vía pública





Auzokide batzuek bialdutako argazkiotan ikusten danez, aspaldi honetan herriko zenbait lekutan arratoiak agertu dira, bizilagun batzuek euren borondaterik onenagaz katuentzako janaria kalean ixten dabelako, besteak beste. Janari hori, baina, katuentzako ez ezik, karraskarientzako elikagai bere bihurtzen da sarri.

Astero egiten diran arratoi-hiltze tratamenduez aparte, egungo egoera ikusita, tratamendu berezia egin da urigunean.

**Desde el Ayuntamiento se solicita que se dejen de depositar alimentos para los felinos callejeros, ya que la comida atrae también a roedores**

Han sido varias las personas que se han puesto en contacto con el Ayuntamiento debido a la presencia de ratas en varios puntos del municipio, causadas en buena parte, en opinión de personal experto, por la comida que algunas vecinas y vecinos dejan para alimentar a los felinos, lo que en algún caso, inlcuso podría llegar a generar problemas de salubridad.

Por un lado, los gatos obtienen comida fácil y no les es preciso cazar roedores; por otro lado, hay que tener en cuenta que las ratas son omnívoras, alimentándose de toda clase de sustancias orgánicas, tanto vegetales, como animales. De ese modo, las ratas acuden también a la llamada de esa comida fácil, aumentando su presencia en las calles y facilitando su reproducción.

A través de estas imágenes, se puede observar cómo algunas vecinas y vecinos, con buena voluntad y sin mala intención, dejan comida en la calle para alimentar a los gatos; sin embargo, esta práctica contribuye también a proporcionar alimento a los roedores.

De acuerdo a la Ordenanza Municipal Reguladora de la Recogida de Residuos, está totalmente prohibido el vertido en la vía pública de cualquier residuo, sustancia o compuesto, por lo que, desde el Ayuntamiento, hacemos un llamamiento expreso y firme a las vecinas y vecinos para que se dejen de depositar alimentos para los gatos, ya que esa práctica atrae también a las ratas.

El Consistorio realiza **semanalmente** tratamientos de desratización; además, y vista la situación actual, se ha realizado un **tratamiento extraordinario de desratización** en el núcleo urbano.

¡Es **necesaria** la colaboración de todas y todos para erradicar este problema!

**CAMPAÑA DESRATIZACIÓN OCTUBRE 2018**

-Tratamiento intensivo puntual de desratización: 1.953,93€

# Argiteria publikoa aldatu eta LED teknologia sartu da

Gure udalerriak aurrera jarraitzen dau jasangarritasunaren eta energia kontsumoa gitxitzearen alde egiten. Horretarako, gure argiteria publikoan ohiko argiak kendu eta LED teknologiako ekipamenduak sartzen jarraitzen dogu.

Beste argi batzuen aldean, teknologia honek %60 eta %80 arteko energia aurrezpena lortzen dau. Bestalde, argiztapena bere hobetu egiten da.

**UDAL FRONTOIAN ETA TROBIKAKO INDUSTRIALDEAN HONEZKERO LED TEKNOLOGIAKO EKIPOAK DAGOZ JARRITA.**

Orain dala aste batzuk jada, udaleko langileak kale-argiak ordezkatzen hasita dagoz. Azken jarduera Torrebillela Kultur Etxean egin da eta bertan, dagoeneko, aldatu dira hornikuntzako argi guztiak. Udaleko pertsonal teknikoa Mungiako argi publiko guztiak ordezkatzen joango da apurka-apurka. Ekimen horri esker, arlo honetan Udalak egiten dauen gastua nabarmen jaitsiko da.



Seguimos apostando por la sostenibilidad y el ahorro en el consumo energético y por ello estamos renovando las luminarias públicas por equipos de tecnología LED. La última actuación ha sido realizada en Torrebillela Kultur Etxea, donde se ha procedido a cambiar todas las luces del equipamiento.

# Mugikortasun Astea







Pasa den zemendian Mugikortasun Astea ospatu genduan gure udalerrian, ekintza ugari antolatuta. Beste batzuen artean, Mungiako ikasleak oinez heldu ziran euren ikastetxeetatik Foruen plazara eta bertan udaleko ordezkariakaz alkartu ziran udalerrian zentzuzko mugikortasuna sustatzeko. Horren ganera, bide-heziketarako zirkuitua eta gymkhana egin, kutsadura luminikoaren ganeko antzezlanaz gozatu eta Mungian zehar bizikletaz ibilteko urteera egin eben.

En septiembre celebramos la semana de la movilidad con actividades como un teatro sobre la contaminación lumínica y un recorrido en bicicleta por Mungia.

# Uriguen Haurreskola sigue mejorando sus instalaciones y equipamiento

**Redistribución y aprovechamiento de espacios**

Uriguen Haurreskola arrancó el curso con nuevas reformas en el equipamiento correspondientes a la segunda fase del proyecto de mejora de este espacio.

**LA ACTUACIÓN INCLUYE INSTALACIÓN DE CALEFACCIÓN, ELECTRICIDAD, ACABADOS DE PINTURA Y COLOCACIÓN DE PAVIMENTO NUEVO.**

Estos trabajos han contado con un presupuesto de 51.737,15€. Este invierno se realizará el siguiente paso donde se colocarán nuevas puertas de acceso (6.863,00€) y un sistema de seguridad contra incendios (5.864,76€).

Uriguen Haurreskolan ekipamenduak hobetzen jarraitzen dogu. Oingoan psikomotrizidade gela barria egin, lehen solairuko gela guztien birbanaketa gauzatu eta korridore eta harrerako zonaldeak txukundu dira. Horretarako 51.737,15€-ko aurrekontua erabili da. Hurrengo hobekuntzak sarbideko ate barriak jartzea eta suteen kontrako seguridade sistema instalatzea izango dira.



Se han unificado varias aulas con el fin de acondicionar y ofrecer **una nueva sala de psicomotricidad**. Igualmente, se han **redistribuido todas las aulas de la planta baja** sustituyendo los tabiques existentes con paneles correderos por tabiques de pladur con puertas y ventanas. Estos **favorecen la comunicación entre aulas y mejoran el uso del equipamiento.**





En la **zona del pasillo central y la recepción** se han empleado **nuevos acabados de pintura** en paredes y techos. Además, se han **incorporado paneles traslúcidos** en el techo de la zona central, ganando amplitud y luminosidad.

# Mungiako kirol kluben talde federatuak

## Los grupos federados de los clubs deportivos de Mungia

| **C.D. MUNGIA**<br>**Talde Federatuak** Grupos Federados | **GIZONEZKOAK**<br>MASCULINO | **EMAKUMEZKOAK**<br>FEMENINO |
|---|---|---|
| **Erregional maila** Categoría Regional | **3** | **1** |
| **Jubenil maila** Categoría Juvenil | **3** | |
| **Kadete maila** Categoría Cadete | **4** | **1** |

| **DANAK BAT PELOTAZALE ALKARTEA** |
|---|
| Erregional mailako txapelketetan parte hartzen dau, modalidade honeetan:<br>Eskupelota, pala motza, larruzko paleta eta gomazko paleta. |

| LARRAMENDI IKASTOLA KIROL TALDEA<br>**Talde Federatuak** Grupos Federados | **GIZONEZKOEN FUTBOLA**<br>FUTBOL MASCULINO | **EMAKUMEZKOEN SASKIBALOIA**<br>BALONCESTO FEMENINO |
|---|---|---|
| **Senior maila** Categoría Senior | **1** | **1** |
| **Jubenil maila** Categoría Juvenil | **1** | |
| **Kadete maila** Categoría Cadete | **2** | |

| MSK HOCKEY MUNGIA **Talde Federatuak** Grupos Federados | **TALDE MISTOA** GRUPO MIXTO |
|---|---|
| Infantil maila Categoría Infantil | **1** |

| MUNGIA ATLETISMO TALDEA<br>**Talde Federatuak** Grupos Federados | **GIZONEZKOAK**<br>MASCULINO | **EMAKUMEZKOAK**<br>FEMENINO |
|---|---|---|
| **Beterano maila** Categoría Veterana | | **2** |
| **Promesa maila** Categoría Promesa | | **1** |
| **Helduak, estatu maila** Categoría adulta estatal | **1** | |
| **Jubenil maila** Categoría Juvenil | **1** | |
| Kadete maila Categoría Cadete | **1** | **7** |

| **MUNGIA-BUTROI ESKUBALOI KIROL TALDEA**<br>**Talde Federatuak** Grupos Federados | **GIZONEZKOAK**<br>MASCULINO |
|---|---|
| Senior maila Categoría Senior | **1** |
| Kadete maila Categoría Cadete | **1** |

| MUNGIA RUGBY TALDEA Talde Federatuak Grupos Federados | GIZONEZKOAK MASCULINO | TALDE MISTOA GRUPO MIXTO |
|---|---|---|
| Senior maila, Estatuko Liga Categoría Senior, Liga Estatal | 1 | |
| Categoría Senior, Liga Vasca Senior maila, Euskal Liga | 1 | |
| Jubenil maila Categoría Juvenil | | 1 |
| Kadete maila Categoría Cadete | | 1 |

| MUNGIA SASKIBALOI KLUBA Talde Federatuak Grupos Federados | GIZONEZKOAK MASCULINO | EMAKUMEZKOAK FEMENINO |
|---|---|---|
| Senior maila, Erregionaleko Liga Categoría Senior, Liga Regional | | 1 |
| Senior maila, Euskal Liga Categoría Senior, Liga Vasca | 1 | 1 |
| Categoría Juvenil | 1 | 3 |
| Kadete maila Categoría Cadete | 1 | 1 |

| MUNGIA WATERPOLO - IGERIKETA TALDEA Talde Federatuak Grupos Federados | GIZONEZKOAK MASCULINO |
|---|---|
| Senior maila Categoría Senior | 1 |

| VALENTIN URIONA TXIRRINDULARI ALKARTEA. |
|---|
| • Euskadiko Txirrindularitza Federazinoak antolatutako gizonezkoen kadete eta jubenil mailako probetan parte hartzen dau.<br>• Lurraldeko Federazinoakaz batera parte hartzen dau.<br>• Eskolarteko topaketetan bere hartzen dau parte. |

# Udal Kiroldegiko abonua HAZeko kutxazainean eskuragarri

**Kutxazainean auto-gestionatu leiteke**

Udaletik gure zerbitzuak mungiarroi hurbiltzen eta hobetzen jarraitzen dogu. Hori dala eta, pasa dan zemenditik gora **Udal Kiroldegiko erabiltzaileek euren abonuen eskaera** (urtekoa, hiru hilekoa edo udakoa) auto-gestionatu ahalko dabe kutxazain baten bidez. Kutxazain hau Udaletxeko arkupeetako HAZ bulegoaren sarreran dago jarrita.

**KUTXAZAINA GOIZEKO 7:30ETIK GAUEKO 22:00ETARA ERABILI LEITEKE.**

Mobiduteko arazoak daukiezan pertsonei, euren tramiteak egitea erraztuko deutsien pantaila bat dauko makinak behealdean. Braille sistemako seinaleak bere badaukoz, pertsona itsuek edo ikusmen urria daukienek erabili ahal izateko.

En nuestro empeño por acercar y mejorar nuestros servicios a la ciudadanía, desde septiembre las y los mungiarras podemos auto gestionar la solicitud de abono del Polideportivo Municipal a través del cajero del SAC ubicado en los arcos del Ayuntamiento.



# Kanpoko igerilekuek harrera ezin hobea izan dabe


Datorren udari begira instalazinoa jagon eta hobetu egingo da erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

**Balantzea sano positiboa izan da**

Kanpoko igerileku barriak bagilaren 17an inauguratu ziran, ate irekien jardunaldi bategaz, eskainitako zerbitzuaren kalidadea hobetzeko. Egindako balantzea ezin da positiboagoa izan, eremu barriak uda-sasoian bisita ugari izan dauz eta. Batez bere umeak izan dira txirrista, zurrusta eta ur-kanoi dibertigarriez gehien gozatu dabenak.

Eguraldia aldeko faktore, asko lagundu dau. Esan geinke igerilekuak bisitatu dauzan jendeak horreen erabilera ederra egin dauela. Eguneko batez beste 369 sarrera erregistratu dira.

Proiektu barri honek harrera oso ona izan dau auzokideengan eta hori atsegin handiz hartzen dogu Udalean.

Ganera, uda-sasoirako **abonua ateratzea aukeratzen daben pertsonen kopurua bikoiztu** egin da. Igaz 196 harpide egon ziran, eta aurtengo udako denboraldian, barriz, 405 erabiltzaile izatera heldu gara.

**Proiektu barri honek harrera oso ona izan dau auzokideengan eta hori atsegin handiz hartzen dogu Udalean.**

## GURE LEHENTASUNA PERTSONEN SEGURTASUNA DA.

Halanda bere, datorren sasoirako kanpoko igerilekuak egoera ezin hobean egon daitezan, instalazinoak hobetzen eta lantzen jarraitu gura dogu. Hori dala eta, erorikoak eta irristadak saihesteko, **sakonera gitxiko eremuaren zoladura sendotu egingo da.**

## Excelente acogida de las nuevas piscinas exteriores

Las nuevas piscinas exteriores han tenido un balance más que positivo. En la temporada de verano las nuevas instalaciones han tenido numerosas visitas y, las personas usuarias, sobre todo niñas y niños, han disfrutado con toboganes, chorros y divertidos cañones de agua.

Se ha registrado un promedio de 369 visitas diarias a las piscinas exteriores. Además, se ha duplicado el número de personas abonadas para la temporada de verano: de 196 personas (2017) a 405 personas (2018).

De cara a la próxima temporada y con el propósito de garantizar la seguridad, se reforzará el pavimento de la zona sin profundidad para evitar caídas y resbalones.

# 100 urte atzera eginez
## Lore Jokoak



Aurten, Lore Jokoen hamalaugarren edizinoak *Ehun urte atzera* izan dau gaitzat. **Gure herriaren nortasuna markatzen dauen jai honek** Mungia euskal tradizinoz bete eban: musika, euskal dantza, zanpantzarren kalejira, txistulari, bertsolari, erraldoi, antzerki, joko, bazkari, erromeria eta abar.

Iragana ezin da ahaztu eta horregaitik gure asmoa **Mungiak orain dala 100 urte eukan bizimodua irudikatzea** izan zan. Horretarako, jantziak, antzinako ofizioak eta postuak erabili ziran. Han ibili zan kinkilaria bere, oihal dotoreak saltzen, bai eta petrikillak bere.






Antxinako **herri bazkaria** ospatzeaz ganera, **euskal kantak abesteko** eta erromerian dantzan ibilteko aukera izan genduan. **Barberu dantza eta maleten jokoakaz** bere makina bat barre egin genduzan mungiarrok.



Ospakizun honen **helburuak gure herriko historia erakustea,** antxinako ohiturak berreskuratzea eta mungiarron parte-hartzea sustatzea dira. Jakina, guzti hori jai-giro ederrean.



Parte-hartzea da egun honen ondasunik handiena. Udaletik **gure eskerrik beroenak** eman gura deutsueguz egun hau hain ederra izan daiten **lan egiten dozuen alkarte eta herritarroi.**

Este año la fiesta de Lore Jokoak nos situó en Mungia, hace 100 años. En esta decimocuarta edición se involucraron, como en años anteriores, diversas asociaciones, colectivos y personas a los que queremos agradecer su labor y esfuerzo.

# Nazioarteko eta Euskal Herriko abesbatzen topagunea

Mungia acogió el pasado noviembre el XVIII Encuentro Internacional de Masas Corales de Mungia en el que participaron el premiado coro juvenil de Letonia *Kamer Koris*, el coro Bilbaíno *Arte Factum* y el Getxotarra *Areetxo Ganbera*.

J.M. Arregi Abesbatzak antolatuta, Udalaren laguntzagaz, **Mungiako Nazioarteko Abesbatzen XVIII. Topagunea** ospatu genduan zemendian. Ahotsik ederrenak zapaturo batu ziran Andra Mari eta San Pedro eleizan.

Horren ganera, Mungiako hainbat musika-taldek Santa Zezilia, musikarien patroiaren eguna, ospatzeko kontzertuan parte hartu eben: Tantak Korala, Gure Ametsa Txistulari Taldea, Danontzat Abesbatza, Alaiak Mungialdeko Soinulari Elkartea, J.M. Arregi Abesbatza eta MMUK (Udal Musika Eskolako Umeen Korua).

Hasteko, maila altuko **Letoniako *Kamer Koris* gazte-koruak** nazioarteko ikutua emon eutson musika-jaialdiari. Taldeak hainbat sari eskuratu dauz, besteak beste, **Tolosako Abesbatzen Lehiaketako 50. urteurreneko Sari Nagusia.**

Bilbon eratutako eta udabarriko kontzertuetan urtero parte hartzen dauan ***Arte Factum* Abesbatza** eta Areeta-Getxotik etorritako 18 gizon-emakumez osatutako ***Areetxo Ganbera* Abesbatza** bere izan genduzan.



Tolosako Abesbatzen Lehiaketan irabazle izan zan Letoniako Kamer Koris abesbatza.

Horren ganera, Mungiako hainbat musika-taldek **Santa Zezilia, musikarien patroiaren eguna**, ospatzeko kontzertuan parte hartu eben: Tantak Korala, Gure Ametsa Txistulari Taldea, Danontzat Abesbatza, Alaiak Mungialdeko Soinulari Elkartea, J.M. Arregi Abesbatza eta MMUK (Udal Musika Eskolako Umeen Korua).

# Mungia celebra la XXXV Muestra Micológica

Nuestra localidad acogió en noviembre la XXXV edición de la Muestra Micológica de Mungia, una cita que cada año pone en marcha Arraultzagorringo Mungialdeko Mikologia Elkartea, en colaboración con el Ayuntamiento.

**EL EVENTO INCLUYÓ UN CONCURSO DE PINTURA.**

El día anterior se llevó a cabo una recolecta cuya intención era conseguir el máximo número posible de setas para su posterior exposición en Andra Mari. Allí, las y los asistentes pudieron conocer de cerca los dispares ejemplares y disfrutaron de una degustación de setas.





La muestra micológica tuvo una muy buena acogida en Andra Mari gunea.

Joan dan zemendian XXXV. Erakusketa Mikologikoa antolatu zan. Bertan, perretxiko ezbardin ugari egon ziran ikusgai, azalpen eta guzti. Eta ikusteaz ganera, probatzeko aukera bere egon zan.

# San Antontxu 2019



San Antontxuetako jai programan egingo diran kultur jardueren artean ondokoak dira aipagarrienak:

**Urtarrilaren 17an Elliott Murphy eta Olivier Durand-en kontzertua** eskainiko da Olalde Aretoan. **San Antontxu Eguna, urtarrilak 18, Gure Ametsa Txistulari Taldea, Trikitixa, Amilotx Dantza Taldea**ren kalejira eta fanfarriaren musikagaz giroturik egongo da.

11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Mungiako kaleetatik zehar **tren txutxua** ibiliko da. Eguerdiko 14:00etan **Amilotx Dantza Taldeak** dantza egingo dau Udaleko bidegurutzean eta ordu erdi geroago **Los incansables fanfarriak** kaleak girotuko dauz. Arratsaldeko 17:30ean Olalde Aretoan umeentzako **"Pinotxo" antzezlan musikala** egongo da eta 18:00etan **euskal erromeria** hasiko da Euskal Pizkundean. Horrez ganera, 19:30ean kaleko animazinoa egongo da **Txikuri fanfarriaren** eskutik.

**Urtarrilaren 19an Lapikoko Eguna ospatuko da, IX. Indaba-txapelketagaz.** Aurtengoan Mungialdeko Ehiza, Arrantza eta Tiro Alkartea eta Gizaberri Alkartea ibiliko dira antolakuntza lanetan. Foruen eta Matxin Plazan batutako dirua ekintza solidario batera bideratuko da. Arratsaldeko 20:00etan **Aukeran konpainiak dantza ikuskizuna** eskainiko dau Olalde Aretoan.

San Antontxuko **XX. Herri krosa urtarrilaren 20an egingo da.** Joan dan urteko arrakasta ikusita, aurten bere Mungia Atletismo Taldeak antolatuko dau krosa, Mungiako Udalaren laguntzagaz batera. Helduentzako zein umeentzako ibilbideak egongo dira. Horretatik aparte, Taket Mungiako Bertsolaritza Alkarteak antolatutako **XXI. Bertso Paper Lehiaketako Sariak eta bertso saioa** egingo dira.

# Euskal Herriko Marmitako Txapelketa

Pasa dan irailean **gure herrian bigarrenez egin zan** Euskal Herriko Marmitako Txapelketa. Torrebillela parkean egindako ekimen horrek bere XLI. edizinoa bete eban. Mungialdeko Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarteak antolatu eban ekitaldia, Udalaren laguntzagaz batera. Eguraldi onak lagunduta, Euskal Herriko txoko desbardinetatik etorritako **38 kuadrillak hartu eben parte lehiaketan** maila ezin hobea erakutsiz.



# Irakurketa familiengana hurbiltzen

Udal Liburutegiak, familien artean irakurketa sustatzeko, Kontuleku proiektua jarri eban martxan urrian. Bederatzi saiotan, 3 eta 6 urte bitarteko umeek eta euren gurasoek edota familiek liburutegira taldean joateko aukera izan dabe, dane batera liburuakaz, literaturagaz, sormenagaz eta fantasiazko unibertsoagaz kontaktuan jarteko.

# Din Dan Don, Gabonak datoz!



Abenduaren 15-16 eta 22-23ko asteburuetan **Mari Domingik Olentzerorentzako gutunak jasoko dauz** Olentzeroren etxean (Izenaduba basoan).

Abenduaren 19tik 24ra **Gabonetako Azoka** bere izango dogu Euskal Pizkundearen Etorbidean.

24an Andui Kultur Alkarteak antolatzen dauen **Olentzeroren etorrera ikusi ahal izango dogu.** Landetxo baserritik Udaletxera etorriko da herriko kaleak zeharkatuta.



Gabon gauean, ETB1en, Mungian aldez aurretik grabatutako **Herri Txiki Kantari saioa** emitituko da. Aurten bere Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga izango dira aurkezleak eta euskaldun ospetsu batzuk jarriko dabez kantuan.

Abenduaren 26, 27 eta 28an **Gabonetako Parkea** jarriko da Udal frontoian umeentzako ludoteka, puzgarri, tailer eta hainbat jolasegaz. Sarrera doan izango da.



Ganera, 28an **Belako taldeak kontzertu** ederra eskainiko dau Mungiako beste musika talde batzuen laguntzagaz Olalde Aretoan.

Abenduaren 30ean, ume eta gaztetxuentzako **GO!AZEN 5.0** antzezlan musikalaz gozatzeko aukera ederra eukiko dogu Olalde Aretoan.

Urtarrilaren 4an **Goizargi Gospel Choir** taldeak eskainitako Gospel kontzertua egongo da Olalde Aretoan.

Urtarrilaren 5ean **Errosko Solidarioaren Jaia** izango dogu Andra Marin.

**Estas Navidades...**

- Los días 15-16 y 22-23 **Mari Domingi recogerá las cartas para Olentzero**.
- Desde el día 19 y hasta el 24 se podrá disfrutar y comprar en **la Feria de Navidad.**
- El día 24 **Olentzero recorrerá Mungia** desde Landetxo hasta el Ayuntamiento. Asimismo **se emitirá el programa** *Herri Txiki Kantari* previamente grabado.
- Del 26 al 28 el frontón será un **Parque Infantil de Navidad**. Además el día 28 **el grupo Belako ofrecerá un concierto** acompañado de otros grupos musicales locales.
- El día 30 disfrutaremos del teatro musical **"GO!AZEN 5.0"** en Olalde Aretoa.
- El 4 de enero actuará **Goizargi Gospel Choir**.
- El 5 de enero tendrá lugar el evento **'Errosko Solidarioaren Jaia'** en Andra Mari.



MUNGIA UDALA

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI•2224/2012

Mungin geure ikurrek